



ONDARROAKO UDALA

ZERGEN KUDEAKETA, ZERGA BILKETA ETA IKUSKARITZAREN UDAL ORDENANTZA OROKORRA

I. XEDAPEN OROKORRAK

Lehenengo artikulua

Udal honek Zerga Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskaritzaren egintzak Ordenantza Orokor honetara egokituko ditu.

Bigarren artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan ezarriko da.

Hirugarren artikulua

Udal Administrazioak gauzatuko ditu zergen kudeaketa, zerga bilketa eta ikuskaritza. Betiere, bere eskumenak Foru Aldundiari edo Autonomia Erkidegoko Administrazioari eskuordetu ahal izango dizkio eta, oro har, herri administrazioekin lankidetzan jardun ahal izango du.

Era berean, Udal Administrazioak udalerriko kide diren erakunde elkarteek ematen dituzten zerbitzuak erabiltzea erabaki ahal izango du.

II. ZERGEN KUDEAKETA

Laugarren artikulua. Kudeaketarako araudi esparrua

Zergen kudeaketa martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergen Foru Orokorrean, hau da 2/2005 Foru Arauan; abenduaren 16ko Toki Ogasuneko 9/2005 Foru Arauan, eta ondorengo aldarazpenetan ezarritakoarekin bat etorritik gauzatuko da.

Bostgarren artikulua. Hobariak ezartzea

Tokiko zergak arautzen dituzten Zerga Ordenantzetako hobari bat baino gehiago ezartzea eskatzen den kasuan, hobariak ezin izango dira aldi berean ezarri eta eskatzailearentzat hobari onuragarriena ezarriko da.



ONDARROAKO UDALA

III. ZERGA BILKETA

Seigarren artikulua.- Zerga Bilketarako araudi esparrua

Zerga kredituen eta Udalaren eskubide publikokoak diren gainerakoen zergen kudeaketa Udalak berak egingo du Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergen Foru Arau Orokorrean, hau da 2/2005 Foru Arauan; eta abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretuak onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga Bilketaren gaineko Arautegian ezarritakoarekin bat etorriz..

Zazpigarren artikulua. Zerga Bilketa Betearazpideko aldia

Aldi betearazlea automatikoki hasiko da borondatez ordaintzeko aldia amaitutakoan. Borondatezko aldia amaitu ondoren egindako edozein ordainketak, nahiz eta ordainketa borondatezko aldiko kontuetan egin, ez du suposatuko kreditua ordaintzerik; aldi betearazleko zorraren kontura egindako sarreratzat joko da. Ordainketa Udalak aldi betearazlerako zehaztutako konturen batean egingo balitz, diru kopurua berehala intsuldatuko da dagokion karguan zirkunstantzia zehaztuz.

Toki Ogasuneko 9/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan ezarritakoa betez, udalaren eskubide publikoko sarrerak direla-eta udaletik kanpo zerga bilketa betearazlearen alorreko jarduketarik egin behar izanez gero, Udalak berak egingo ditu halakoak Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Zortzigarren artikulua.- Kobraezin adierazpena eta kreditu kobraezinak

Zerga Bilketa Zerbitzuak kobraezin adieraziko ditu, ordainketarako obligaziodunak izanik, administrazio prozeduren bitartez zorra kobratu ezin denean kaudimen gabeziagatik edo bizileku ezezaguna izateagatik; betiere zerbitzuak daukan datuen eta egindako jarduketan arabera. Kobraezin oso edo partzial adierazteak, erantzukizun subsidiarioa dela eta erantzukizuna beste balizko zergapekoen aurka eramateko espedientea abiarazteko aukera irekiko du. Dena den, horrek ez du eragotziko Toki Ogasunak zordun kobraezinaren aurkako ekintza egokiak gauzatzea, zor hori kobratzeko administrazio ekintza iraungitzen ez den bitartean.

Zordun baten kobraezin adierazpenak, kredituak ezin kobratuzkoak aitortu badira ere, ez du eragotziko inola ere kreditu horien ordainketari aplikatzea, birgaitze egokiaren ondoren, eragozpen xede izan daitezkeen zenbatekoak, konpentsazioaren xede izan daitezkeenak, atzeman diren edo atzeman daitezkeen ondasunen besterentzeen ondorioz eskuratzen direnak, edo beste edozein diru sarrera.

Premiamendu bidea inolako emaitzarik gabe amaitu ondoren, Zerga biltzaile Organuak aginduko du ordaintzeko obligazioduna kobraezin adierazteko egiaztapenak hasteko.

Zerga Bilketa Sailak kobraezin adierazpena izapidetzean, zerga erantzuleak dauden ikertu ondoren, beste zergapekorik ez dagoela xedatzen badu, kreditua kobraezin adieraztea proposatuko du.



ONDARROAKO UDALA

Aurreko izapide guztiak burutu ondoren, Udaleko Diruzainak meheko adierazteko proposamena egingo du. Proposamena onartu ondoren, baja emango zaio liburu eta matrikuletan eta zergadun kobraezinen fitxategia osatuko da. Fitxategi horretan mantenduko da zorraren inguruko informazioa preskripzio epea irau arte, eta hau igarota, behin betiko baja emango zaio.

IV. IKUSKARITZA

Bederatzigarren artikulua. Ikuskapenerako araudi esparrua

Zergen ikuskapena Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergen Foru Arau Orokorrean, hau da 2/2005 Foru Arauan; Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ikuskapenaren inguruko Arautegia onesten duen ekainaren 21eko 99/2005 Foru Dekretuan, eta ondorengo aldarazpenetan ezarritakoarekin bat etorritik gauzatuko da.

V. ARAU HAUSTEAK ETA ISUNAK

Hamargarren artikulua. Arau-hauste eta zehapen gaietarako araudi esparrua

Zergen arau hausteak Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergen Foru Arau Orokorrean, hau da 2/2005 Foru Arauan, eta ondorengo aldarazpenetan ezarritakoarekin bat etorritik kalifikatu eta arautuko dira.

Arau hausteei ezartzekoak zaizkien isunak Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergen Foru Arau Orokorrean, hau da 2/2005 Foru Arauan; zergen zehapen araubidea ezartzen duen ekainaren 21eko 100/2005 Foru Dekretuan, eta ondorengo aldarazpenetan ezarritakoarekin bat etorritik aplikatuko da.

VI. EGINTZEN BERRIKUSPENA ADMINISTRAZIO BIDEAN

Hamaikagarren artikulua. Administrazio bidezko berrikusterako araudi esparrua

Administrazio bidean dauden zergen kontuetan emandako egintzen berrikuspena Zergen Foru Arau Orokorrean, hau da 2/2005 Foru Arauan; Toki Ogasuneko 9/2005 Foru Arauan, eta administrazio bidezko berrikuspen gaietan 2/2005 Foru Arauaren Garapen Erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorritik egingo dira.



ONDARROAKO UDALA

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honako Ordenantza honek indarra hartuko duen momentuan indargabe geratuko da Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskaritza gaiei buruzko Ordenantza Fiskala, Udalbatza Osoak, 1989ko urriaren 20ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bitartez onartutakoa (BAOren 293 zenb., 1989ko abenduaren 22an argitaratua)

AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko maiatzaren 27an izandako udalbatzaren osoko bilkuran onartu zen eta ondorengo legezko testu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean eta indarrean jarraituko du aldaketarik edo indargabetzerik onartzen ez den bitartean.